


## ANTXIÑAKO FOTOGRAFIAK



### Ama Birjiña Pagokua

**O**rain hurrengo alian **Ama Birjiña Pagokuaren** historixia kontaittia aginddu notsuen. Urbixarako bidian daguen iturrinari, 1957xan jaso zanian, izen hori jarri otsailla esaten geben. Zergatik? Hona hemen arrazoa: **Erroitti** edo Erroitegiko paraje horretan, pittin bat barrurago, bazan **pago haundi eder bat**, zahar samarra, bere enbor borobillian dezenteko **hutsunia** eukana. Zulo hori aprobetxauaz, **kuadro bat ifiñi euen bertan** Arantzazuko Ama Birjiñiaren irudixarekin. Noiz eta zeintzuk Joxe Iñazio Lasak argiketan dosku **Tejiendo historia** liburuan.

Bertan dixuenez, **Joxe Antonio Imaz Iparragirre** Idiazalbalgua eta **Sindikako Julian Madinabeitiaren aitta** izan ei ziren kuadrua arbolan kokatu euenak 1880 inguruan. **Joxe Antonio gaztetan morroi** egon zan urte pare batian Arantzazuko **Sindika ostatu-baserrixan**. **Gerora artzaintzan** jardun eben, Urbixa aldiaren seguru asko, bizilekua Goieritik Burundara, (Izaldik Olaztira) aldatuaz. Naparruako herri horretan hil zan 1927xan 67 urterekin. Bere semien esanetan, **ixa urtero faten ei zan oiñez Arantzazura**, batzuetan Galarretatik eta beste batzuetan Aizkorritik zihar, betik ardi bat eruan ez Ama Bijiñiari eskintteko.

Ba, Andra Marixaren **kuadruori larogei urte pasa egon zan babestuta** paguaren txokotxo haretan, iturrirra egin zanian, lekuz aldatu euen arte. Gaurko **argazkixak**, hain zuzen be, batetik bestera **1957ko udan prozosiñuan eruan zanequak** dira. Ezkerreko fotografian honeik ezagutu dittugu, bestiak beste: aurrekaldian, **Joxe Iñazio Lasa**, iturri-proiektuaren animia, roketek zurixarekin, **Agustin Biain** frantziskotar oñatiarra, eta beste fraide gazte bat; eskuman atzeratuago, **Felix Igartua** bere seme **Tomaseri** lagunketan kuadruaren karriuan; atzerago, Juanitosieneko ama-alabak, **Kasilda Zufiria** eta **Rosita Arregi**; horrein atzian **Eloy Tejada**, Aitta Lasaren monagillo ospetsua Urbixako ermittan.

Eskumakaldeko argazkixan, barriz, lehenguez gaiñera, beste honeik be identifikatu dittugu: aurreneko illaran, **Joxe Mari Agirrebaltzategi** abade oñatiarra, gorago aittatutako frantziskotarrekin batera; bigarren illaran-edo, **Pako Errasti** mutikua, **Pedro Igarzabal** hazitxua eta **Bittor Madina** mutikua, erdi ezkutuan; atzerago **Teofilo Agirrezabal**, Oñatiko kronistia orduko periodiko batian, eta **Ernesto Biain** mutikotxua, Tomas Igartuaren anderokidia; hurrengo illaran, **Pedro Agirre** eta **Joxe Luis Letamendi** gaztiak edota **Pedro Guridi** Oñatira ezkonduetako mondraguetarra dagoz, beste batzuen artian.

Milla esker anonimatuan geraketia gura izan dauen oñatiarrari, argazkixak gure esku jartiarren, eta Imanol Arabaolazari, argibide batzuk samurketiarren.